

# RIKARDO KAZETARI ETA SAIOLARI

---

JOXE AZURMENDI

## AURKIBIDEA

<b>“Euskaraz idaztea hautamen bat da”</b> .....	318
<b>Autodidakta maisua</b> .....	321
<b>Begiak han, eskuak hemen</b> .....	322
<b>Kazeta saio labur bat adibidez</b> .....	326
<b>Saio handiak: historiaren berrirakurketa orainaren analisiaren parte bezala</b> .....	331
<b>Autokritikoa</b> .....	335
<b>Errealismoaren inperatiboa</b> .....	338
<b>Rikardoren “bidea”</b> .....	339

Rikardo (1942-1969) andoaindarra da. Andoain herri apala da eta horregatik maite du Rikardok are gehiago<sup>1</sup>. Euskara hizkuntza apala da. Astekari eta aldizkari apalak ziren 60. etako Argia eta Jakin haietxek, horietan, herri apal baten hizkuntza apalean kazetari lan apala, horixe izan baitu Rikardok bere egitekoa.

Ez noa, hainbeste apaltasun gorabehera, Rikardoren birtute pertsonalen aipamenik egitera –horretarako adina ez nuen ezagutu–, intuizio eta erabakimen handietako belaunaldi gogor honen kondizioetan, lehen orduan, haren hautuak eduki duen zentzu politiko eta militantea azpimarratzera baizik, berak ulertu duen moduan eta berak behin eta berriro adierazi. Euskal Herria belaunaldi honek ez du maitatu munduko herri zaharrena, munduko herri demokratikoena omen delako, etab., herri kaskar hauxe delako baizik. “Zorionez, herri umila, izen handirik gabekoa da gurea. Horregatik maite dut gehiago, horrexegatik nago fier eta harro nere jaioterriaz. Ezagutzen baititut bertan lanean ari diren euskaltzale militante zahar eta gazteak, eta horregatik gordetzen dut Euskal Herriarengan esperantza” (HL 243-244).

Hau bere barneko jarrera moral oinarritzko bat izan da beste kapitulu batzuetan ere. Triunfalismo katoliko batzuek berdin gogaiterazten zuten (RA 81). “Egiaren maitale batek”, marxisten aurrean adibidez, konplejurik gabe, baina apaltasunez ibili behar luke. Harrokeria gabe, zein zientifikoago edo zein aurrerakoiago. “Zenbaitetan ez dira ikusten kristau aurreratuak, marxismoarekin obsesionatuak daudenak, hauek baino aurreratuagoak nola izan; hau nola gainezkatu, superatu, hauen ordezko «aurreratu» bat aurkitu. Horregatik ez zaizkit atsegin Teilhard de Chardin eta neurri estuagoan Mounier. Badirudi Teilhard de Chardinekin batzuek hau diotela: «Ikusten duzue?, guk ere badugu pentsalari moderno bat, zientifikoa eta Marx bera baino aurreratuagoa, jakintzari

---

<sup>1</sup> Rikardoren idazkiak laburdura hauekin aipatuko dira: Pat = *Politikaren atarian*, Lur, Donostia 1969. RA = *Rikardo Arregi*, Jakin, Oñati 1971. HL = *Herriaren lekuko*, Jakin, Oñati 1972.

“Gure herria [Andoain], gure gizonetan eta gertaeretan, herri apala izan da historian zehar. Aita Larramendi eta O'Donellek galdu zuen bataila kenduz gero, ez da ezer handirik gelditu” (HL 243).

buruz ezkertiarra. Egon gindezke trankil, guk ere badugu, zuek marxistak bezain pentsalari sakon eta azkarra. Ez dugu zuen beharrik progresistak izateko.” (Ib.). Rikardok ez ditu maite postura horiek. “Saia gaitezen apalki egiaren bila joaten, gauzak diren bezala ikusi eta aurkitu nahian eta ez guk nahi genituzkeen bezala ikusten” (HL 266). Azken esaldi honetan ohar bedi gauzak diren bezala hartzeko abisu hori ere, Rikardok behin eta berriro alegatuko du eta.

“Benetako demokrata izateko [ere] lehenengo behar den dohaia apaltasuna da” (HL 274).

Jazo baititeke, gurea ez izatea iritzi egokiena. Orduan bestearen iritzira makurtzeko apaltasuna, edo irekitasuna, behar da eduki. Askotan problemak berak ere, edo kontzeptuak berak, ez daude batere garbi, eta “hobe izango da, horregatik, planteamendu honetan umiltasun handiagoarekin ibiltzea” (Pat 59). Oraindik gazteegiak garelako, edo problemak zaharregiak direlako, umiltasunaren eskabidea etengabekoa da Rikardoren gogoetetan. Idazten ere publiko apal batentzat ari da. “Umilik izan beharrean aurkitzen gara beraz” (Ib., 19).

Jarrera edo izpiritu honetan gauzatu da Rikardoren kazetari eta saiolari lana. Erabakimen erradikal handi batekin, baina apaltasunez, errealismoa galdu gabe.

## “Euskaraz idaztea hautamen bat da”

Izpiritu horretan ematen da batez ere lehen urratsa, ondorioan bizitza eta obra osoa kondizionatzen duen erabakia: hizkuntzarena. Hautapen politikoa eta kulturala da hori, baina sakon-sakonki determinazio pertsonala da orobat. Rikardok badaki: “Euskal Herriko idazle eta pentsalari batentzat euskaraz idaztea lehen konprometitze bat da. Euskaraz idaztea hautamen bat egitea da...” (RA 133).

Hori JAKINen idatzi du, baina pentsamendu hori obratu batez ere Argian egin zuen. “Rikardo *Zeruko Argiako* gizona da. Periodista” (HL 12), *Herriaren lekuko* bildumaren hitzaurrean Joan Mari Torrealdaik esan digun moduan.

Iruñetik aldatu eta 1963an informazio orokorreko astekari bilakatu denean Donostian Argia<sup>2</sup>, orrialde politikoaren kargua Rikardok hartu du beregain. Martxoan hasi, beraz, eta handik aurrera, besteei egin edo moldarazi dien makina bat lanez gain, Rikardok berak astero-astero

<sup>2</sup> Argia esan dadinean, uler bedi orduko ZERUKO ARGIA (“Argia” soil 1980az gero)!

publikatu du bere informazio-iruzkin saiotxo politikoa 1969ko uztai-lean hil den arte, salbuespen txit justifikatu gutxiren batzuekin. Intere-santea izango da agian salbuespen horiek hurbilagotik behatzea –hemengo zeregina ez da biografikoa, baina– Rikardoren eboluzioa piska bat segitzeko:

- 1964, hutsune bat dago azaroaren 1.tik abenduaren 27ra arte: alegia, Rikardo espetxean dago (Eguberrietarako etxeratu da, abenduaren 17an) EGIN ibiltzeagatik atxilotuta.
- Beste hutsune bat 1965eko urrian eta azaroan: epaia Madrilen (fiskalak lau urte eta bost hilabeteko gartzela eskatzen du eta diru-zigor bat; libre ateratzen da, askatasun kondizionatuan). Rikardo ekintza politikotik osoki kulturgintzara pasatzen da; biragune urte gurutzeala haren pentsamenduaren eboluzioan.
- 1966 urte oparoa da; gero, 1966ko azaroan hasi eta 1967 osoa irregularra: Rikardo soldaduzkan dago, Marinan (Ferrol, Cadiz); ekainean ezik (oporretan?), ia ez du ezer idatzi garai horretan Argian.

1967 JAKINeko saio handien urtea du Rikardok; eta, nolabait, eboluzioaren fruituarena, haren pentsamenduaren finkapenarena, bai Euskal Herriarekiko eta bai politika internazionalarekiko kontzeptuetan. Argian idatzi dituen artikulua bakanak ez dira, ordea, uztekoak, urte honen bilantza egiterakoan.

Espetxetik atera eta epaiketaren zain zegoen artean (1965), Rikardok bere burua klandestinitatera pasa eta politikara guztiz dedikatzeko eskaini du antza, baina EGI/EAJak ez bide du holako esperimuntuetan interesik eduki, ETAKoen gisara. Rikardok orduan, politika utzi eta, osoki kulturgintzari lotzea deliberatu du. 1965ean Xabier Santamaria lagun mina hil da (bera ere auto istripu batean), biak EGIN elkarrekin ibiliak eta biak batera detenituak<sup>3</sup>. 66 estudio eta irakurketa urtea izango du Rikardok: ekonomia, politika, Euskal Herriko historia (García de Cortazar, *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*), etab. Klase borrokaz, Europako sozialismoaz, sindikalismoaz, interesatzen da.

Badago gauza guztiz ohargarri bat irakurlearentzat Rikardoren eboluzioan: kristau-demokrata<sup>4</sup> bezala ikusten dugu 64 urtea bukatzen eta

<sup>3</sup> Xabier Santamaria ez da gartzelara joan: ospitalean egon da ohean poliziek zaindua.

<sup>4</sup> "Nik, gazte, kristau eta demokrata bezala..." (HL 131), 1964eko martxoan; ik. Rikardoren poza Freiren garaipenagatik Txilen (Ib., 86) irailean. Euforia gutxiago, 1965eko martxoan (Ib., 88 eta hur.).

66 hasieran sozialista aitortzen bere burua, jadagoneko bera ez dela kristau-demokrata, inolako zalantzarik ez uzteko, espreski argituz. (“Orain dela bi urte<sup>5</sup> kristau demokrata nintzen, gaur egunean berriz ez naiz horrelakoa”: HL 251). Kritikak kristau-demokraziei, are Alderdi demokristauen ideia bera zapuztuz, 1965eko maiatz alderako ageri ditu (Ib., 152, adibidez)<sup>6</sup>. Bitarte horretan zuzen-zuzen kristau demokraziari buruzko bere balioespenak ezezik, Europaren balorazioa ere biziki aldatu du<sup>7</sup>, etc.; eta aldi berean Rikardo konklusiora iritxi da bere baitan, Euskal Herriaren itxaropena ez dagoela Alderdi klasiko “zaharretan”, herriz-herri sortzen ari diren indar berrietan baizik: antzerki talde, ikastola, sindikato, etab., hots, “Gazteria berria” versus EAJ/PNV. Baina ez belaunaldien arteko eten bategatik bakarrik. Alternatiba Rikardorentzat jada ideologikoki zein terminotan planteatzen zen, garbi zegoen soldaduzkara joan denerako, Galiziatik bidali duen “Euskal kultura” (1966. 12. 25, ik. HL 217-221) meditazioan dakusgunez: euskaltzaletasun tradizionalak lantzen edo amesten zuen euskal mundu ruralista industriak suntsitua denez gero geografia honetan, zer egin orain Euskal Herriaren eta euskararen salbabidearentzako, “planteamendu burges” bat eginen dugu (“hauek ez dute sistema aldatu nahi, sistema horretan gailen direnak, goian direnak euskarara bihurtu nahi dituzte”) ala estrategia “proletari” bat behar da aitzitik marraztu? Hori da funtsean 67ko saio handi guztiek, abertzaletasun tradizionalaren (EAJ/PNV) kritika erradikal batekin, erantzun nahi duten galdera.

1968 Rikardoren kazetaritzan urte emankorrena izan da. Argian ezezik, Anaitasunan, JAKINen (“nota laburrak”), aspergabe idazten du. Baina kazetaritzak ez du agortu haren aktibitatea. Honela oroitu da Alfabetatze Batzordea (Rikardo hil eta berehalako testu batean): “Soldaduska bukatu ondoren askozaz ere helduagoak zituen alfabetatzeari buruzko iritzi eta asmoak. 1968ko urtarrilean agiri berri bat egin zitzaion Euskaltzaindiari eta orduan batzorde berri bat antolatu zen Ain-

<sup>5</sup> Alegia 1964ean.

<sup>6</sup> Eta oso erreparatzekoa iruditzen zait, eboluzioaren barne-koherentzia ikusteko, katolizismo europar historikoari eta haren ondoriozko Alderdi demokristauei egiten zaien kritika, euskal abertzaletasun tradizionalari egingo zaion berbera izatea funtsean: historiaren martxa bazterrean egon izana XIX. mendeko iraultzaz gero (“defentsiban bizi izan dira, ghetto batean bezala, eta askotan Erdi Arora bueltatu nahian”).

<sup>7</sup> Ikus, adibidez, Europaren aldeze sutsua izanaren iritzi hau 1966ko urtarrilean: “Era guztietara De Gaullek Europari, Elkarrekiko Merkatuari heriotza ematen baldin badio, ez dut nik negarrik egingo. Eta hori europeista naizelarik, bainan badira negarrik sortzen ez duten hildako piztiak” (HI 252).

geru Irigarai jauna lehendakari zela eta Rikardo idazkari. Garai txarrak ordukoak. Rikardok, ordea, segi eta segi, eta alfabetatzearentzat antolaketa berria egitea erabakitzen du: Kanpainarentzat diru laguntza, hain premiazkoa dena, autofinanziazioa ezina denez gero, sortzeko bideak bilatzea. Eta horretarako zenbat elkar-hizketa, zenbat ate-joka, Jainkoak daki zenbat lan igazko [1968] udaberri guztian zehar. Horrezaz gainera alfabetatzean bigarren maila jarri nahi lehendik aurrenengoa egin dutezentzat..., dibulgazioko liburuak argitaratzeko editorial bat bere aspaldi-aspaldiko ametsa sortzeko pausoak eman, eta zenbat eta zenbat lan. 1969ko otsailean planteatu zuen alfabetizazioaren antolaketa berria erabat seriozki azkenean ematen dugun erara” (RA 56).

Egiaz, euskal munduan geratzea konpromezu bat hartzeko hautapena dela, esaten zuenean, bazekien Rikardok zer esaten zuen.

## Autodidakta maisua

Rikardo kazetari maisua izan bada, esan nahi zuena esateko grinak egin zuelako da haren estilo direktoa, garbia, ez literatoa izateak edo preokupazio estetikoak. “Kazetaritzan, A. Lertxundik abertitu zuenez, adieraziak du garrantzi guztia, eta adierazlea ez da adierazia ahal den garbien eta egokien, direktoen esango genuke, emateko tresna eta tramankulu besterik”<sup>8</sup>. Batez ere Rikardorentzat balio du horrek: “Rikardok funtzionaltasun baten zerbitzuan ipini nahi izan zuen euskara. Eta funtzionaltasun horren arabera ulertu behar da zerabilen euskara”.

Pentsatzen dut kazetaritza ere ez dela kazetaritza BAT, hau da, ez da berdin irratian, telebistan, prentsan, medioarekin aldatu egiten delako hizkera ere. Baina prentsak ere sailak eta mailak dauzka, eta Rikardok, bere kazetaritza bat asmatu zuen bezala, kazetaritza horren estiloa ere, euskaraz berak sortu zuen. Estilo horren azterketa sistematikoagoak egitea, ez dakit Kazetaritza Fakultatearen zeregina izango den, niri behintzat ez dagokit. A. Lertxundik Rikardoren espresioaren libertatea destakatu du, garbi/mordoilo istiluetatik urruti; errekurtsu errazen erabilera, etab. Ohar oso polita adjetibazioaren erabilera juxtuaz egin du, esate baterako, hor Rikardoren kazetaritza tipoaren ispilua bezala hautemanen: “Jakina da adjetibatzeak juizio moeta bat dakarrela. Jakina da kazetaritza, nahiz aseptiko ez izan, juizioen aurka dagoela, kazetariak gertakizuna irakurlearen aurrean ipini behar duela, irakurleak

<sup>8</sup> LERTXUNDI, A., “Rikardo, idazle”, *Jakin* 10 (1979) 117-118.

hauta dezan bere juizioa. Honela bada, puntu hau azterketa baten beharrean dago Rikardoren lanen baitan”<sup>9</sup>.

Azterketaren premian geratzen da, orobat, Rikardok nola demonio moldatzen zuen gaiaren aurkezpena ere, iturri bezala funtsean Pariseko *Le Monde* edo *Nouvel Observateur* erabiliz<sup>10</sup>, euskal irakurleok, berak egiten zuen bezala, liluratuta edukitzeko astero-astero, arazo berez nahikoa urrutikoeekin, etxeko problemak balira bezalaxe serbituak ordea mahaiean. Bere periodismoa, berak asmatu zuen. Baina beti egondakoa ematen zuen nolabait. Problema gabe zeriona, freskoa, gure-gurea.

Rikardok mundua “euskaraz ikusten” asmatu zuen: euskaldunaren maneran alegia. Gertakari urrun batek hemen produzitu behar zuen sentimentua isladatzen. Hemengo egoeratik erreparatzen. Eta hemengo jendearen testuinguruarekin eta erreferentziekin janzten. Horretarako nahikoa da batzuetan bertso bat, kanta zati bat sartzea, hitz klabe bat erortzen uztea iragaitzean (egia da orduan “askatasuna”, “herria”, hitz kasi subersiboak zirela!)... Abildade kontua bakarrik ere ez da izan. Saiatu da ahal zuenean euskal kulturako testuingurua espreski aurketzen: Lafitte aipatzen, Platoni buruz iharduteko (Pat 87), edo Ajuriagogeaskoaren artikulua Spinozari buruz (Ib., 138). Jokabide kontzientea da, beraz.

## Begiak han, eskuak hemen

Zentsura dagoen gizartean, idazleak mezua lerro artean iragazteko artea asmatzen du, irakurleak lerroen artean irakurtzen ikasi behar izaten dizu. Esan gabe esateko eta idatzi gabekoa irakurtzeko arte komunikatibo birfinduak.

Bertoko arazoei buruz urrutikoez hitzeginez hitzegiteko artea xorroxtu behar izaten da batez ere, zentsura dagoenean.

Zentsura dagoenean, esaterik egoten ez den gauza bat, zentsura dagoela, izaten da, adibidez. Orduan Polonian zentsura dagoela, idazten da esate baterako; eta hango idazleen komeriak zentsurarekin, eta Gobernuaren akusazioak eta difamazioak idazlearen aurka kontatu eta gero, “Estatu totalitario guzietako agintariek gezurra esateko askatasun oso-osoa daukatela”, jarraitzen da. Eta, handik aurrera, zeinek ez daki

<sup>9</sup> Ib., 118.

<sup>10</sup> *Témoignage Chrétienne* ere bai antza (ik. HL 274; Argiako politika internazionalako orrian ik. zein prentsatik hartu ohi ziren aipamenak).



Polonia hori Pirinioetatik behera dagoela? “Gezurrik handiena esanda ere ez die kontra inork egingo. Eta, gainera, gure egunean jendea engainatzen oso erraza delako Estatu batentzat bere eskuetan baldin badauzka tresna guziak. Hori dela-eta zertarako sar giltzapean Estatuak bezala pentsatzen ez duten guziak? Askotaz ere hobea da horiek libre uztea, baina bere iritzia ez ezagutzeko modua egitea” (HL 82). Baina Estatuak zentsura askatasun itxura batekin ezkutatzeak, ondorio kultural edo politiko arruntez gain, beste edonon ez bezalako ondorio batzuk ere baditu Euskal Herrian Rikardoren ustez, genozidak hain zuzen. Espelikazio handi gabe zuzen-zuzen jarrai lezake, beraz, Rikardok, bere irakurleak erraz jarraituko diola fidatuz bapateko jauzi mortal horretan gai batetik bestera: “Kultura batek, hiltzeko zorian dagoen kultura batek, egin litzake ahalegin guztiak bizitzen jarraitzeko, baina eskolak, egunerokoak, irriak, telebistak kultura horren kontrako Estatuak dauzkan bitartean alferrik izango da noizean behin kultura horri dagokionez libururen batzuk argitaratzea; hori, hiltzen dagoenari morfina piska bat ematea bezala da. Bainan horrela Estatuak nahi duena lortzen du, jendea engainatzea. Liburu batzu horiek ikusita jendeak kultura horrek askatasun osoa daukala uste du eta fariseo tankeran gauza asko esan litzakete agintari totalitario horiek” (Ib., 82-83). Zer ikusi behar zuen honek Poloniarekin? 1964eko maiatzean idatzi du hori Rikardok, eta Villasantek Barzelonan Axularren *Gero* edo Arestik *Harri eta Herri* publikatzea ondo dagoela, baina ez dela nahikoa askatasun euskararen bizitzarako, uler daiteke apika, beharbada askatasun itxurak salbatzeko bakarrik eta engainatzeko baino.

Askatasuna eta demokrazia urteotan diren etengabeko alusioetan, Alderdien istorioak, Europaren batasuna, Aita Santua bera, dena etor daiteke esku-eskura dejadatxo bat edozein pilotarekin egiteko. Aita Santuak hitzaldi bat egin badie gazte demokristauei, “ez gaitezen ahantz, Aita Santuak hitzaldia egin dien gazte horiek politikari dagokionez, demokraziari dagokionez, partiduekiko demokrazia defenditzen dutela”. (Francorena “demokrazia organikoa” zen, Alderdi bakarrekoa). Espainian asko aipatzen da Aita Santua: baina Aita Santuak Alderdi anitzekiko demokrazia onesten du! Eta Espainian asko aipatzen da Europako batasuna: baina batasun hori dagitenak demokratik dira eta batasun hori dagiten Europako Estatuak demokraziak. Eta Espainia katolikoan asko aipatzen den Aita Santuak Europa horren batasunari oniritzi dio; eta kristau militanteak dira Europa hori egiten ari direnak... “Eta demokrazia zentzu horretan ententitzea debekatua dagoen Estatu batek nola nahi lezake benetan Europaren batasuna?” (HL 132).

Testuinguru honetan sartzen da, nik uste, *Politikaren atarian* saioak Machiavelli tratatzeko moldea –Franco iradokiabartzeko eran– edo Platon bera garratz samar “aktualizatzen” badu tarteka (Pat 86-99). Bi Mundu Gerren arteko literatura polemikoaren sutan, demokraziaren apologistek ekonomia, soziologia eta filosofia bera arma gorri bezala erabili dituzte diktatura handiak konbatitzeko. Holako obra polemiko klasiko bat Popperen *Gizarte irekia eta bere etsaiak* izan baita, Platon diktatore modernoan aitagoitzat estanpatuta utzi duena. Egia da gerra bukatu eta berehalaxe agertu direla Popperen Platon-irudia polemika horretatik erreskatatzen eta zuzentzen zuten obrak, Platonen espezialista handiek paratuak. Baina hemen ez gaude han, eta, gainera, hemen urte askoan jarraitu da oraindik polemikarekin...

Zailena ETari buruz arras gaitzirizteko idatzi gabe idaztea zen orduan ere. Britainiako Liberazio Fronteko militante batzuen auziak eman dio aukera Rikardori: “Bretoien artean batzuek beren Herriaren beregaintasuna erdietsi nahian bortxakeriara jo dute eta arrastatu egin dituzte” (HL 123-124). Erakunde armatu horrek “Britainiaren askatasunerako indarra beste biderik ez dela uste du eta zirkunstantzia horietara egokitutako gerla gisa baten bitartez bakarrik lor daitekeela askatasun hori”. Abertzaletasun bretoinak agian ez du iragan loriatsua izan beti (“Ikusi dugu nola hitlertiarrekin kolaboratu zuten bigarren gerla nagusiaren garaietan. Eskuinetik etorri dela, neurri batean, bretoin abertzaletasuna”) eta Frantzian edo hemen batzuek laster esango dute B. L. F.ko militanteok eskuindarrak direla eta mesprezatu egin nahiko dute horien borroka beste gabe. Baina ez. “De Gaulleren Britainiako beajea dela-eta, manifestazioak izan dira. Bretoien artean Britainiaren beregaintasuna defenditzen zutenek bretoieraz mintzatzen ziren, Britainiaren ikurrinarekin zebiltzen eta gehienak ezkertiar eta sozialista gazteak ziren. Hauek beren manifestazioetan «Internazionala» kantatzen zuten. – De Gaulleren aldekoak, berriz, Britainiaren beregaintasunaren kontra agertzen zirenak, kontserbadoreak eta eskuindarrak ziren batez ere. Hauek, berriz, Frantziako banderarekin eta Marsellesa kantatzen agertzen ziren”. Ikusten da non dauden eskuinak eta ezkerak (han bezala hemen). Batzuek ukatu edo ezikusi nahi duten abertzaletasun ezkertiarra, iraultzailea, fenomeno berria da (han bezala hemen). Estatuak ulertuko ez duen fenomeno berria (hemen bezala han). Horrela “Britainian ERE, gezurra baldin badirudi ere, Pariseko gobernua izango da abertzaleen alde lan gehiena egingo duena. – Arazo guztia aktibista batzuen eta apaiz zoro batzuen besterik ez dela usteko du. Horregatik azalean bakarrik geldituko da eta B. L. F. ez da hilko. Ondo ezagu-

tua den dialektika bategatik behin eta berriro indartsuago jaioko da” (Ib., 126). ETak ez bezala, B. L. F.ak beste problema interesgarri bat planteatzen du: borroka armatuaren legitimitatearena demokrazian. Galdera hori planteatuta dago Rikardoren obran, ez da oraingoa (“Bre-  
tainia Frantziaren menpean dagoenez, han demokrazia liberal bat  
-geroz eta faxistagoa baldin bada ere- badela ez dugu ahortzi behar”).  
Eta Rikardoren erantzuna ere nahikoa garbi dago: iraultzaren legitimi-  
tate osoa du (baina iraultzarena!). “Horregatik, bada, delako fronte  
horren gauza batzuek kritika daitezkeenak badira ere, bere sustraiaren  
aldetik eta bere ideologiaren aldetik, nik uste, Bretainiaren askatasune-  
rako inportantzia handikoa izanen dela eta frantses politikaren zigor-  
pean jakingo duela benetako erreboluziogintzan sartzen” (Ib., 126-127),  
beste leku batzuetan sartu den bezalaxe... Testuok 1969ko urtarril-  
otsailekoak dira. Esan daiteke gutxi-gorabehera hitz horietan dagoela  
Rikardoren ETaren balorazioa ezkutaturik.

Erresistentzia armatuak prezio altua ere badu, politiko zentzudun  
eta errealistek, zientifikoek injustifikatua ikusten dutena (“zenbat eta  
gutxiago egin, orduan eta zientifikoago”). Rikardok inbasore sobieta-  
ren aurrean bere buruari su eman zion Ian Palach txekiarraren kasua  
dela-eta aipatu du, bere bizia aberriaren alde opaltzen duen gaztearen  
sakrifizioa, errealistek “abenturismo”, “moralismo” eta “derrotismo bur-  
gestipi” bezala gutxietsi ohi dutena. Rikardorentzat errealismo guztien  
gainetik handitasun morala argiratzen da sakrifizio ilun horietan;  
esperantzarako arrazoia den handitasuna hori. “Txekoslovakiantzat,  
beste zenbait Herrirentzat bezala, gau ilun bat aurrez aurre. Sofrimen-  
dua etengabe. Baina ez da alferrik izanen noski. Zerbaiterako izanen  
da. Beti ere gogoan ditut abeslariaren hitz haiek: «Gauak goiz alba/  
duela ondoko...»” (HL 296-297). Eta irakurleak primeran ulertzen zuen,  
zeintzuk ziren Ian Pallach euskaldun aludituak, Rikardok politiko “er-  
realista” guztiei hobetsiak.

Batez ere Euskadi nazioa da. Rikardoren kazetaritza guztiaren  
azpian hori izan dela leit-motiv gidaria, esate hutsak zunzunkeria  
emango du, baina ez da. Izan ere Rikardok ez dihardu definizioen bat  
hiztegian ematen (“EH da...”), eguneroko informazio lanean kontzient-  
zia franko galdua birreskuratu nahita baizik. Euskal Herria al da Nafa-  
rroa? “Euskal Herria hitzak geografia bat adierazten du: Kantauri itsa-  
soak, Gaztelerrriak, Aragoek, Gaskunia eta Bearnok mugatzen dituzten  
lurraldeak” (Pat 26). Bitxia izango da, baina, Euskal Herria errealitate  
geografiko bat ere badela gogoratzea ez ote da beharrezkoa oraindik?  
berriro?... Batez ere Iparraldea ez dela estranjeria, “gure Herriaren

eskualde bat” dela, eta hango arazoak gure arazoak direla, gogoratuko digu: “Euskal Herriaren eskualde batzuek Frantzian kausitzen direnez eta Euskal Herria euskaldun guztiok osatzen dugun Herria denez” (HL 127; ik. Ib., 116, 212, 254). Ez da ahaztu behar, gaur-egun ideia hauek gutxienez abertzale jende batentzat agian nahiko arruntak badira, Rikardo bezalako zenbaiten atzoko ahaleginari eskerrak dela.

## **Kazeta saio labur bat adibidez**

Idatzi duen gehiena kazeta saio laburra izan da: hirurehunik gora<sup>11</sup>, 1963-1969 artean, Argian gehien-gehienak, Anaitasunan eta JAKINen banaka batzuk, politika internazionalako albiste iruzkinak ia beti.

Merezi du probatxo bat egitea, haren kazetaritzako adibide bat hona aldatuz eta egunkaria edo astekaria irakurtzen dugun arrapaladan egin ahal izaten duguna baino piska bat astiroago behatuz, formalki, zer esateko zeukana nola idazten zuen; h. d., ikusiz, zer-nola esaten zuen, esan behar zuena, zertan datzan hark sake-ateratzen zuen testuaren erredakzio fulminantea, hain arrakastatsua egi zuena haren “ideien kazetaritza”. 1966ko urtarrilekoa da testua:

### *Laboratorioko sozialismoa*

Sozialismo hitza eta sozialismo dotrina osatu bat ezagutzen ditugunez geroztik, hau da, hemeretzigarren gizaldiaz geroztik, bi eratako sozialismoak bereiztu izan dira beti. Bata sozialismo utopikoa; eta bestea, berria, zientifikoa.

Zientifikoa behetik gora dabilela esan daiteke eta utopikoa berriz goitik behera. Sozialismo zientifikoa errealitatean finkatzen da eta errealitatean finkatu eta sustraiturik ateratzen ditu bere dotrina eta egite guztietarako ideiak. Sozialismo honentzat historiak berak erakusten du, historiaren sentiduaren barruan dagoen gizarte berri bat etorriko dela edo ekarriko dela eta ekartze hori gaurko gizarte justizia gabeko honetan menperatuta, eta oinperatuta daudenek bakarrik egin lezaketela.

Sozialismo utopikoak ere asko hitzegiten du justizi-ezaren gainean, bere sortzaileak asko mintzatzen dira herriaren zorte txarraren gainean, baina lehendabizi egiten dutena teorian gizarte ideal bat sortzea, buruan ordea eta ez errealitatean. Gero ahalegintzen dira gizarte ideal

<sup>11</sup> Alegia, berak sinatuak hori. Susmoa dut sinatutako adinatsu sinatu gabeko lan dagoela berea Argiako politika internazionalako orrietan (gogora haren aitortza: “Nere obligazioa -orri oso batena- asterokoa dela, eta inspirazio izan edo ez izan, bete egin behar dudala”, HL 123): hemen bere lan sinatuez bakarrik baliatzen gara halere.

hori errealitatera ekartzen, baina jakina ez dira behinere horretara iristen. Gizarte gaitan behetik gora ibili beharra baitago eta ez goitik behera, utopikoak ibiltzen diren bezala.

Sozialismo zientifikoak badu tradizio bat, badu eskola bat. Horregatik gaur egun zenbat liburu eta aldizkaritan ikasi eta estudiatu litekeen gauza da. Horregatik zenbait estudiante eta bere burua pentsalarizat daukateneak, liburu horietan sozialismoa zer den ikasi duela pentsatzen duelako, utopikoen antzekoak izatera iristen dira. Zergatik? Herriarengandik aparte bizi direlako. Aski da XIX. gizaldiko soziologo eta ekonomilari handienari irakurtzea, hori, herriarengandik aparte sozialismoan pentsatzea, zenbaterainoko bekatu astuna den ikusteko.

Pentsalariak ere badute beren zerikusi handia sozialismo jasotze horretan. Batez ere herritik eta proletarotik ateratakoak. Baita besteek ere, burgesiatik ateratakoek, desburbesatzen baldin badira. Ez itxuran, beren baitan baizik. Herriak sozialismorako borroka horretan aurreratu batzuek behar ditu, aurreratu horiek izango dira bere posibilitateen kontzientzia herriari emango diotenak. Baina horretarako, jakina, kondizio bakarra, herriarekin bizitzea, herriaren pentsamendua finkatzea da. Baina alderdi hauetako zenbait pentsalari eta estudiantek, bere artean asko eztabaidatzen dutelako, liburu asko irakurri dituztelako eta guztiez gaizki mintzo direlako, bere burua sozialista jatortzat dauka. Eta hori sozialista utopikoa izatea baino okerrago da.

Nere adiskide malizioso batek esaten zuen bezala, badira gure hiri-buruetan ministro izateko estudianten ari direnak. Gerorako prestatzen ari direnak, baina, jakina, nola sartu gaur eginkizun txikietan eta utikarrietan! Baina, zorionez, herriak badaki otsoa arkume tartetik bereizten (HL 154-155).

Oso egitura txukun, garbia du lanak, ductus ezin sinpleago batekin antza. Testuak dauzkan sei atalak hiru multzotan biltzen dira: 1 Sarrera (A), 2-5 Gorputza (B) eta 6 Errematea (C). Arrazoiketa nondik nora eraman den maltzurki, hasierako esposizio objektibo hutsaren itxuratik azkeneko iseka eta ironiara, begirada bakarrean ikusteko, nahikoa da A eta C segidan irakurtzea; titulua ere elementu inportantea izan da operazio horretan (testuan errepikatzen ez den irudia horixe, bestalde, laborategiaren figura erabakiorra: itxaron zitekeenaren aurka). Batetik besterako eraldakuntza poliki-poliki eraman da, ezer gertatzen ari ez balitz bezala, h. d., istorioa narratu bakarrik egingo balitz bezala, testuaren gorputzean. Kazetari "behatzaile neutroaren" mozarroa osoki gordetzen da itxuraz, gauzak horrela izaki, gauzek berek ematen duten ondorio logiko soilaren irudia edukitzeraino azkeneko ironiak berak. Testua "Rikardo gabe" gertatzen da itxuraz. Errealitatea bera ari zaigu

zer-nolakoa den kontatzen, – gurekin batera Rikardori ere, adiskide maliziosoa berdin mintzo baitzaigu hari eta guri.

Sarreran (A) kurioa da nola lortzen den objektibitatea, kontzeptuaren arazoko zailtasunak (historikoak, teorikoak) oro baztertuz erradikalki lumaren dekretu batez. Laborismo ingelesa bi horietako zer ote da?, edo, has gintezke galdezka, eta beharbada eskema hori ez dela egokiegia, aterako litzaiguke; edo eskema hori bera historikoki ez dela eskola konkretu batek bere buruaren alde asmatutako interpretazio eskema besterik (ez batere neutrala!), etab., etab.... Baina Rikardo ez doa sozialismo kontzeptuaren analisi historiko, filosofiko-teoriko, ekonomikoak egitera; eta bera doanerako, ez du ilegítimo bikoiztasun horixe dekretatzea. Bere asmorako, berak ez du gehiago behar. Bakarrik, Rikardok ez du esaten berak horixe besterik ez duela behar, bai zik holaxe dela, puntu: BETI absolutu batekin, gainera, puntua hobeto borobil-borobiltzeko. Gauza bera da holaxe: ez, niri iruditzen zait holaxe; eta beti izan da gainera holaxe. Bi sozialismo besterik munduan ez dago, beraz.

Bi sozialismo horiek aurkezten zaizkigu orain. Bata utopikoa da (izen propio antzera dago hemen utopiko adjektiboa erabilita); bestea, – ez!, izenarekin identifikatu aitzina, koma batek ebaki eta adjektibotxo ia ohartezin batek jaun honen herronka berezia iragartzen digu: “bestea, BERRIA...”, izan ere, hau sozialismo zientifikoa da. Ez da edozer gauza. Zientifikoa izateaz beste, berria... Ongi bai hortxe ageri ongi, adjektiboak juizio mota bat sartzen duela testuan (eta lehen berdin adberbioak, argumentu tazito bat)! Baina ezkutatu egiten du, juizio bat sartzen diharduenik: isilpean, hau berria izateak automatiko zaharra bihurtzen du bestea... (baina kazetariak inon ez deritzo besteari espreski zaharragoa), seguruenik txarragoa hortaz. Pentsatzen hasita, “beti” diren bi gauzetan bata nola berria izan daitekeen eta bestea zaharragoa, agian ez da erraz ulertzen: baina... Hasiera-hasieratik, bada, bi kontzeptuak ez dira eszenategira berdin baloratuta ateratzen, baina oraindik aurkezpenak guztiz objektiboa eta neutrala ematen du periodistikoki.

Gorputzera paseaz (B), guk orain –zuek eta nik, oraingo irakurleok–, balioespen subjektiboak oro baztertzearen gure testuan, irakurle neutralak izatea entseiatzeko, sozialismo zientifikoari Anton deituko diogu, eta utopikoari Peru. Zientifikoa, utopikoa, konotazio gehiegiko izendapenak baitira bestela ohiko gure mintzoan. Antonen pentsamendua –irakurtzen dugu testuan– behetik gora doala, esan dai-

teke; Perurena berriz goitik behera. Anton errealtatean finkatzen da, eta errealtatean finkatu eta sustraiturik ateratzen ditu bere doktrina eta egite guztietarako ideiak, etab. Jarraitzen dugu atal osoa irakurtzen (2), eta azkenerako Anton hau tipo izugarri jatorra ez bada, historia bide zuzenetik bideratuko duena, eta oinperatuak eta zanpatuak askatuko dituena, etab. etab., hori jatorra ez bada, ez dakigu asko zer den amaren seme osoki jator bat. Peruk, aldiz (3. atala), injustiziaz asko mintzatu bai, herriaren adu gaiztoaz asko errukitu bai, baina ezer egiteko orduan, lehendabizi egiten duena teorian gizarte ideal bat asmatzea da, buruan ordea, ez errealtatean (!); eta gero ahalegintzen da gizarte ideal hori errealtatera ekartzen, baina, JAKINA!, ezin du. (Saiotxo honetan hiru “jakina!” dago, hirurak estrategikoki ongi paratuak, eskopetak bezala). Sententzia, gero: “gizarte gaietan behetik gora ibili beharra baitago eta ez goitik behera”. Ebidente, denok ados.

Hobeto pentsatzen hasita..., zer ote da behetik gora pentsatzea eta goitik behera pentsatzea? Zer demontre ote da behe hori? Zein ote dugu Peru hau? Apaiz santu edo profetaren bat ematen du apika, elkar maitasunezko gizarte ideal baten ebangelioarekin mundua pulpitutik aldatu nahi eta bi mila urtetan ezinda. Baina apaizak ez dira sozialistak izaten. Zein ote da, hortaz, parroko baten hain antzeko politikoa, sozialista dena gainera?

Baina zeinek erabiltzen ditu buruan horrelako eskrupuloak arin-arin prentsa irakurtzen ari den bitartean?!... Inportantea ote da, gainera? Interesatzen zuena lortzea, engoitik sendo daukagun hauxe da: bada-goela hor zehar, ezertarako balio ez duen sozialismo kalakari bat, errealtatearekin zerikusirik batere gabekoa, ahokoa gehiago eskuetakoa baino, esanahi negatiboz “utopikoa” deitzen duena Rikardok.

Geratu eta begiesten badugu nondik nora heldu garen horretara, esposizioak nola daraman haria kontalariaren aire trebez ikusten dugu. Zein ongi josten edo kontrajartzen dituen puntuak kontzeptu batetik bestera, mailak nola lotzen dituen atal batetik hurrengora. “[1]... Bata sozialismo utopikoa (a); eta bestea, berria, zientifikoa (b). – [2] Zientifikoa (b) behetik gora dabilela esan daiteke eta utopikoa (a) berriz goitik behera. Sozialismo zientifikoa...(b)”: ab – ba// – b” – a”. Thomas Manni behin irakurri nion “eta” juntagailua kasu batzuetan adbersati-boa dela! Horrekin gogorazten nau (3.) atal hasierako “ere” partikula esanahi bihurritz bete horrek, junta adina banagailu... Analizatzen dugu sozialismo zientifikoaren azalpena, eta “errealtatea”, “errealtatean finkatu” (bis), “sustraitu”, “historiak berak erakutsi”, “gizarte berri” termino

sendoekin ikusten dugu hori bere baitan sendo jasota. Aitzitik, “teoria”, “gizarte ideal”, “ez errealtate”, “zorte txar”, “asko hitzegin”, “mintzatu”, kontzeptu ahulak aurkitzen ditugu sozialismo utopikoan erruz, eta “baina”, “ordea”, “gero baina”, “behinere ez” artean dabilkigu hau zambuluka. Sozialismo zientifikoak teoria eta praxia lotzen daki (Rikardok “errealtatean sustraiturik ateratzen ditu bere dotrina eta egite guztietarako ideiak” esaten duena); sozialismo utopikoak ez daki eta gero nahastuta dabil teoriatik praxira etorri ezinda. Sozialismo zientifikoak errealtatean (behean) hartzen du abiagunea; sozialismo utopikoak teoriarik eta gizarte idealaren ametsean. Etab.

Guzti honen ondoren, bere hastapena liburuetan eta irakurgaietan hartzen duen euskal “sozialismo zientifikoaren” paradoxa barregarriaz, estudiante eta sasi-intelektualen sozialismoaz, malizia daiteke Rikardo lasai asko. Horiek utopikoak bezalakoxeak dira, besterik uste badute ere. Zergatik? (Eta orain argitzen zaigu abiapuntu egokirako behar “behe” hura zer zen doi-doi!): “herriarengandik aparte bizi direlako”. Oso abila da, kontzeptuak nola eraman dituen Rikardok, bata-bestearen lekua hartuz: behea berdin errealtatea berdin herria. Sozialista horiek ez dira herritik partitzen, beraz errealtatetik (behetik). Baina agian estudiante eta intelektual superfizial horiek irakurtzen dituzten liburu eta aldizkariak berak ere ez dira oso serioak. *Ad hominem* argumentatuz Rikardok “Marx bera irakurtzea” aski dela, alegatzen baitu. (“XIX. gizaldiko soziologo eta ekonomilari handiena” esaten da, ez dakit gorazarrezko metonimia bategatik ala zentsuragatik, edo zentsura egoteak sortzen zituen autozentsuretako formaren bategatik..., guztiari egon beharko bait litzaioke adi gure hau baino azterketa anbiotsuago bat).

Ez uste, gero, kazetaria bere bidean behera axolagabeki doanik, zapaltzen ari duen problema pila ohartuko ez balu bezala. Ez, puntu korapilotsuetan, artarik handieneko axolagabetasunez zainduta dauzkala terminoak, erreparatzen dugu. Ez oraintxe ikusitako horiek bakarrik: “Sozialismo zientifikoarentzat historiak berak erakusten du, historiaren sentiduaren barruan dagoen gizarte berri bat *etorriko* dela edo *ekarriko* dela...” Etorri ala ekarri? Marxismo-leninismo osoa eta iraultzairen subjektuaren auzi guztiak (posibilitatea, zentzua, etab.), aspaldian egon den eta orduantxe zegoen hainbat polemika hitz bion diferentzia txiki horretan pasatzen ditu Rikardok. Are, ezer egingo ez balu bezala, “etorriko dela edo ekarriko dela eta *ekartze hori* –ebazten dizu berakgaurko gizarte justizia gabeko honetan menperatuta, eta oinperatuta daudenek bakarrik egin lezaketela”. Hemen dena dago txit arduraz



aukeratuta. Determinismorik ez dago: ekarri egin beharko da iraultza eta gizarte berria. Zeinek ekarri? Eta, soegiten dugu berriro, eta proletariorik ez da inon aipatzen...

Benetan Rikardo artista da transmititu behar duena transmititzen, autodidakta izan arren kazetari gisa. Halere Rikardok ez zuen bere burua euskal literaturarako maisu bat uste. (Nahiz bazen esposizioaren maisu bat!). Garbizaleegia ere ez baitzen, kritikarik ez zitzaion faltatu. Ez zen kikildu horregatik (HL 123), asteroko bere lanean jarraitu zuen apal-apal. 1965ean kazetaritzako Lauaxeta Sariak ez zuen gehiago harrotu (aitortza militante bat egiteko parada eman zion berriro). Bere belaunaldiaren eginkizuna etapak erretzea zela sinestuta, atsedetik gabe, mila eginkizunetan buru-belarri murgilduta jarraitu zuen. "Guretzat, Euskal Herriaren belaun galdu honentzat, beta izatea da loteriarik handiena" esan ohi zuen (RA 134); eta nonbait hala da oraindik, Rikardorentzat bezala, hari omenaldi bat egin nahi diogunontzat ere.

## Saio handiak: historiaren berrirakurketa orainaren analisiaren parte bezala

Kazeta saio laburretan zirtizarta, franko dogmakoia irudi balezake ere ausaz, bere egiazko pentsamendu-saio kritikoetan, Rikardok nahiko luzeak, astiro landuak, hausnartuak, JAKINen publikatu dituenetan, tinko, baina oso neurritsu formulatzen ditu ideiak, segurantzia dogmatiko batere gabe<sup>12</sup>. Sona handiko, eta batzuetan eskandalo handikoak, izan dira saiook bere momentuan. 20 orrialde inguruko idazlanak. Hiru inportanteenak 1967koak dira. 68 kazetaritza frenetiko batean eman du. 69 beretzat urte laburrean bi meditazio saio luzeago dauzka ostera, seguruenik interes gutxiagokoak, ez direlako besteak bezain gogoeta pertsonalak edo ez hain borobilduak.

Saio handietan "Balmes eta Kant" izango da (1961) aurrena aipatze-koa, interesik gutxiena guretzat egun berak badu ere, estudiante baten ariketa "akademikoa" izaki. Gogoangarriagoa "Politika estrukturak Europar Alkartasunean" dateke (1964), Rikardoren bokazio politikoa erakusten duelako jada, eta baita karakterizatuko duen afan informatiboa ere<sup>13</sup>. Arnasestuka ageri zaigu lanean dagoeneko ("korrika, golpe

<sup>12</sup> "Ondorenean datozen lerroak Egiaren bila egiten saiatu naizen hurbiltze bat besterik ez dira. Osatu gabea, beraz, geroago zuzendu beharrekoa" (RA 115).

<sup>13</sup> "Nik iritxi nahi nukeena *zerbait informatu*, jakin eraztea da", ik. VV., *Europa*, EFA/Jakin 1965, 194.

batean idatzi dut bururatzen zitzaizkidanak paperetan jarriaz”), beta edukitzearen loteriaren ideia ere hor daukagu. Aipa dezagun azkenik, bukatzeke utzi zuen arren eta nahiz egindako partean ere hutsuneak egon<sup>14</sup>, *Politikaren atarian*, dibulgazio sailerako bera prestatzen ari zen liburutxo<sup>15</sup>.

67ko saioek arras beste jite bat dute. Belaunaldien arteko etena, konkretuki Rikardorena bere iragan gaztearekin, errealitate kontsumatua dela suposatzen da hemen, eta zarrata horren kontu eman nahi da kritikoki.

Bikoitza da deklaratzeko den etena: hautsi, batikbat EAJ/PNVrekin hausten da (abertzaletasun tradizionalarekin); baina ez da EAJ/PNVrekin hautsi PSOE/PCE aldera pasatzeko, oposizio historikoagatik irudi zezakeen bezala (beharbada Txillardegik hori pentsatu du), baizik “ezker zaharrarekin” ere hautsiz erro-errotik eta ez gutxiago. Beraz, bi uko fundamental hori dago saio hauen oinarrian: a) ez abertzaletasun zaharra, b) ez sozialismo zaharra; eta baiezen fundamental bat: bai “ezker berria” edo Gazteria Berria.

Hona hemen hiru saioak (lau emanalditan urtean barrena):

- “Sozialismoa modan dago”, *Jakin* 24 (1967) 36-51.
- “Ezkertiar berriak”, *Jakin* 25 (1967) 9-20 eta 26 (1967) 22-32.
- “Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu”, *Jakin* 27-28 (1967) 23-37<sup>16</sup>.

Hiru horiek 1967koak dira (“soldaduzkakoak”) eta, azterketa tonu serioan, bai ezker klasikoaren eta bai abertzaletasun tradizionalaren Rikardoren abandonoa, puntuz-puntu manifestatzen da horietan. Gai horiek sua ziren paperean eta lehenengo artikulua agertu orduko erre-akzionatu du Txillardegik bizi-bizi, errepika zorrotz batean “postmarxismoa” iragarri bere aldetik<sup>17</sup>. Argian erantzungo dio dexente geroago Rikardok<sup>18</sup>, JAKINeko artikuluen segidan ez baita sumatzen ezer

<sup>14</sup> Adibidez Locke falta da (edo galdu egin delako, edo gero astiroago lantzeko asmoa zuelako), baina hura tratatzea aurrikusia zuela nabari da: 6. zenbakia saltatzen da (autore tratatuen zenbaketan), 145. orrian tratatua balego bezala aipatzen da, etab.

<sup>15</sup> *Politikaren atarian*, Donostia 1969, 5: “Rikardok, hil zenean, liburua amaitu gabe utzi zuen, eta agirian zegoen haren lana «lehen eskuizkribu» mailan zegoela. Lan izigarria izan da eskuizkribu hori inprentara eramateko egokitzea. Lan hau Rikardoren anaiek egin dute, batez ere Josebak”.

<sup>16</sup> Hirurak bilduta aurki daitezke in *Rikardo Arregi*, EFA/Jakin, Oinati 1972.

<sup>17</sup> “Marxismoa modan egon zan. Rikardo Arregiri erantzunez”, *Jakin* 26 (1967) 3-21. “Ni bederen, marxismoari buruz, marxista-ondokoa naiz, post-marxista osotara” (19).

<sup>18</sup> Ik. “Sozialismoa astratua” (*Zeruko Argia*, 1967. XII. 24); “Igara jaunari eskutitz idikia” (*Zeruko Argia*, 1968. I. 28).

egon denik zentzu horretan (argitaratzen hasi direnerako denak eginak edo egin samartuak zeuzkala pentsaraz lezakeena izaki hori). Urtebeteko pausa eginda, 1969an beste bi saio kritikori ekin dio: "Eguzkialdeko haize horiek", *Jakin* 35 (1969) 25-51, funtsean ez du egiten marxismo sobietarraren Marcuseren analisi kritikoa bildu besterik (ezker zaharraren kritikan jarraitzen da beraz); guzti horren gogoeta pertsonalagoa hurrengo baterako agintzen da<sup>19</sup>, baina hurrenik ez da egongo harentzat. Rikardo ez zen behin egindako aukeran itsu geratzen zena. Hil baino hamar bat egun lehenago (RA 163), berea egin duen ezker berri horren kritika bat bezala entseiatu nahi izan du "Kalekumeon ordua eta jentilismoaren tentazioa" izenburuturiko zirriborro batzuetan<sup>20</sup>; baina erraz ikusten da, oraindik burua ez daukala kritika horretarako aski libre: berriro ezker zaharraren ("hemengo sozialismo tradizionala da lotan dagoena") eta abertzaletasun tradizional "jatorristaren" kritikara irristatzen zaio diskurtsua.

Rikardo, eten ondoko alderdian bera posizionatuz, zer gertatu den analisatzen hasten da, kritikoki barnatzeko asmoz oraintxe non gauden. Euskal Herria ez da lehen zena, baina hemengo Alderdiak lehenean daude. Mundu berri bat sortu da eta Alderdiak zaharrean geratu ziren.

Mundu (abertzaletasun, ezker) berri hori nola sortu den arakatzeko hasita, etenaren mugari zehatz bat errepikatzen da Rikardoren analisi: etena 1960 inguruan kokatzen da. Muga horren arrazoia ere ematen da, hori, modu nahiko ekonomizista batean, pentsamendu berriaren arabera, Espainiako Estabilizazio eta Garapen Planek eragin duten birmoldaketa ekonomiko-politikoan ikusiz. Analisi molde hau Rikardok soldaduzkara joan denerako bereganatua dauka (eta 67ko saio handien hasiera-hasieran berriro aurkitzen da, ik. RA 69-70: "1960. urte inguruan azaltzen da euskal arazoetara belauñ berri bat, etab."). Honela dio Argiaren 200. zenbaki berezarako "Euskal kultura"z Ferroldik idatzi duen artikuluan: "Nire iritzian, euskal kulturaren barruan urte, fetxa bat, jarri behar bagenu, gaur egun bere baitan gertatzen diren gauza berriak aztertzeke, 1960. urtea jarri beharko genuke (...). Euskal kulturarentzat 1960. urteak aldi berri baten muga adierazi nahi baldin badu, ez da ahaztu behar urte horretan guti gorabehera hemengo ekonomian

<sup>19</sup> "Orain, gai hau pentsatu egin nahi nuke, baina hori egitea beste baterako utzi beharko dut" (51 or., - RA 162 or.).

<sup>20</sup> "Uste ezean, nahaste-borraste handi samar bat irten zait" (RA 166). Hil ondoren publikatua, RA 163-167.

eta gizartean garai berri batzuen hasiera gertatzen dela” (HL 218-219). “O pensamiento burgués non é o máis acheitado pra plantear a fondo o problema da lingua en Galicia” zerizkion autore galego baten testua berea eginez, eta han oinartuz, Rikardok bere hautua euskaltzale garbi eta antiburges garbi bezala azaltzen du (eta 1966an gaude): “lehenbizi, euskal kulturaren problema, neurri handi batean, eta gehien, hizkuntzaren problema dela esan daitekeelako; bestaldetik, berriz, pentsamendu burgesak hizkuntzaren problema ezin duela erabaki esaterakoan, gaurko gure gizartean euskal kulturari gertatzen zaiona ondoen azaltzen duelako” (Ib., 218). Abertzaletasun tradizionalaren arbuioarekin batera (ruralismoa, etab.), burgesiaren arbuioa.

Etena –Rikardok begiesten duen eran– konplexua eta sakona da: politiko-ekonomikoa, kulturala, erlijiosoa. Dirudienez krisi erlijioso larria pasa du pertsonalki Rikardok, baina fedea indarberriturik atera da handik eta “filosofikoki” ere nolabait “argitua” bide batez<sup>21</sup>. Erlijiosoki ere, ordea, etenaren aurrea eta ondoa ezin izan daitezke berdinak. Oraingo fededunak nola bizi beharra daukan, “Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu” saio bortitzari Rikardok izenburupean ipini dion P. Germainen aipamenak erakusten du: “kristauak bere baitan sinisgabe bat daramaki fededunarekin etengabeko elkarrizketan” (RA 114). Etenak politikoki eta kulturalki signifikatzen duena, Rikardoren pentsamendu sozio-politikoa aztertzen duten ataletan ikusiko da hobeto.

Orain non gauden, nola kokatzen garen orainean da neurri handian. Eta orainean kokatzea, historian modu batera edo bestera paratzea da: politikoki, kulturalki, erlijiosoki, etab. Saio kritikiko handiotan Rikardok egiten duena hori da gehienbat: euskal historiaren erreposo bat, XIX. mendean hasita. Hau da, euskaltasunaren zer kontzeptu eduki den, erlijiosoki “euskaldun fededun” identifikazioak zer signifikatzen duen, etab., eta zergatik lehen pentsamendu horixe eduki den eta zergatik orain ezin den eduki. Historiaren analisi bat egiten bada, gure oraingoxe egoera esplikatzeko helburuarekin duzu. Euskal Herria aldatu egin da, ezin dugu ideia zaharrekin jarraitu. “Mitoak” puskatzen

<sup>21</sup> Mikel Lasari gutunean 1968ko azaroaren 18an: “Krisi hontatik zerbait aterako duk noski eta honen esperantzan bizi beharko diagu. Izan ere krisia nun-nahi agertzen duk, ez duk gurea bakarrik. Hala ere neretzat alde onak izan dizkik. Nere kristau fedea sakondu egin baduk ere, giza mesianismoentzat eszeptikoagoa bihurtu nauk. Behin ere baino gehiago uste diat erabat iluna ez bada ere nahiko iluna dukela historia, ez dukela liburu idiki bat bezala, eta gizonaren problema estrukturaz gainera beste zerbait gehiago dukela. Jatorrizko bekatua munduko egirik handienetakoa eta garbienetakoa zeritzaidak”.

dira, nolabait esan (“desmitologizatzea” modan dagoela, Rikardok berak ironizatzen du).

Rikardok zeukan partikularitasun bat, besteen kritika egiten ari zen berean, bere posizio propioaren flakeziez oso ongi ohartzeko kapazitatea zen; eta, beraz, autokritiko izatekoa. Hori maiz eta modu ezberdinetan erakutsi du. Modu bat, halere, “desmitologizatzearekin” zerikusi behar duelako, bereziki aipatuko nuke. Zenbat desmitologizatzaile ez dugu eduki, izan ere, gero, bere mitogintza propioaz ohartzen ez zekiena!

## Autokritikoa

Abertzaletasun klasikoaren “desmitologizatzea” euskal kulturaren 60eko urteetan egin zela jada, erdal kultura baskoan horrekin ez direla asko akordatu dirudien arren, kontu ezagun samarra izan liteke gure artean. Diferentea tonua izan zen behar bada. Kritikaren arrazoiak eta izpiritua funtseanago.

Rikardok, bada –harekin bakarrik jarraitzeko–, azkeneko bere saio kritikoa, gogorrena zalantza gabe, Che Guevara Bolibian orduantxe triskatuari omenaldi batekin batera JAKINen publikatzen zuen une berean, gogoeta autokritiko bat publikatu du Argian (1967. X. 29) “Absolutugintza” tituluarekin. Hain zuzen, Rikardo inpresionatu zuen irakurketa bat Merleau Pontyrena izan omen zen, adiskideek diotenez. Hortxe dator bera: “Dialektikak baditu, ordea –idazten du Rikardok–, Merleau Pontyk hain ederki erakutsi zuenez, abentura xelebrea batzuk<sup>22</sup>, absolutugintzatik ihes egin nahian absolutugintza gogor eta zorrotzenez erorrazten duenak. Eta ni honetan bekatari naizenez nere errua konfesatu beharrean aurkitzen naiz” (HL 279).

Destruktiboa eta negatiboa dela, kritika gogor mingarrian ari dela, egozten badiote, prest hori dena onartzeko. Egin beharra dago. “Ikono-klastak omen gara. Eta egia da. Sustraitik hasi nahi omen dugu. Eta horrela da. Lehendabizi desegin, gero jasotzeko (...). Folklorekeria, baserritasun hutsa, kapitalismoa, burgesia, kontserbakorra, etab., gure esan eta idatzietan behin eta berriro kondenatuak izan dira. Hitz batean esateko, mitoak, ipuina eta besteratzeta [alienazioa] desegin nahian, despiuntze gogorrean sartuak gara. Eta guztia gizonaren ize-

<sup>22</sup> Aluditua da MERLEAU PONTY, M., *Les Aventures de la dialectique*, Paris 1955 (Max Weber, Lukács, marxista «ortodoxoak», Trotsky eta Sartren historiaren kontzeptuaren edo «dialektikaren» azterketa).

nean, gizarte gizontiarrago baten izenean. Eta hortxe dago koska. Hori, desipuintzea, dialektikaren eginkizuna da. Egonetik higitzera dagoen aldea horrela bakarrik pasa daiteke” (Ib.). Baina dialektikaren (historia-  
ren) lege berak bihurtuko du laster beste ipuin bat gaurko desipuina... Gonzalez Ruizengandik<sup>23</sup> daukan eskema, fedearen historia bere barruan desmitologizazio –autokritika– etengabearen historia bezala (RA 115), beti hurbilketa bat bezala Jainkoari sekula heldu gabe, Rikardok giza historia profanoari aplikatu dio. Mitoak beharrezkoak dira. Bakarrik mitoak gainditzea ere beharrezkoa da gero. Txarra –antihistorikoa delako– mitoan ainguratu eta iraun nahi izatea da. Atzoko arrazoietan mitoa eta ipuina ebidentzian jartzen duen gaurko arrazoia, bera ere ipuin eta mitogintza da. “Gizonak egia ez du behinere bat-batean eta oso-osoan bereganatzen” (HL 280). “Horregatik, guk ere, desipuintzearen lanean gabiltzanok, ipuinak erabiltzen ditugu eta ez dago horretan kontradiziorik” (Ib.).

Honetan guztian Rikardok erakusten duena ez da gaurko desmitologizatzaileek baino beste izpiritu bat bakarrik, gogoeta interesante bat ere baizik mitoaren esangurari buruz eta mitoaren beharraz gizonaren historian. “Mito horiek derrigorrezkoak dira, ezaguera eta asmoetan. Ezagueran azaltzen ez dena, irudien bitartez adierazi behar dugu. Irudi horiek dira mitoak, ipuiak” (Ib.).

Dena dela, problema hor baldin badago, arriskua ere hortxe. “Desipuintzea, ordea, ipuin bat bihur daiteke, eta absolutugintzaren kondena-  
nazioaren ondoren bezala erlatibutasuna zerbait absolutu. Hitzen jokua dirudien esan hau ez da esibizio bat, egia handi bat baizik” (Ib., 279-280). Mitoaren aurka beharrezko borrokan arrazoimena (“zientzia”) absolutiza genezake; gero, arrazoimenaren absolutugintzaren aurka, erabateko erlatibismoan jausi.

Orduan, dena erlatibizatzen ote dugu? Dena berdin ote da? Bai eta ez: baina ez.

Dena historizatu da, egiten duguna. Horrek ez du esan nahi dena berdintzen dugunik.

Hori pentsamenduak eta idealak merkaduria soil bezala kontsideratzen dituen burges batek egin lezake. “Che Guevara edo pentsamendua lapurtu dioten gizona” omenaldiko hitz labur saminetan, prentsa burgesak nola Cheren gorputza hil eta gero haren izpiritua hil duen,

<sup>23</sup> GONZALEZ RUIZ, J. M., *El Cristianismo no es un Humanismo*, Madrid 1966, Rikardoren irakurketa garrantzitsuenetako bat.

salatzen du. Hil bezain laster, egun eta aldizkari, irrati, telebistek, borrokalaria erromantiko baten irudia bihurtu dute; abenturero sinpatiko bat, pobreen aldeko Kixote bat, etab. Bizi zen artean iraultzaile gorrotatu hori, hil eta gero mundu guztiko prentsak halako sinpatia handiz tratatzea, axalean soil da harrigarria. Cheren ideiekin bitan bat bakarrik baitago: bete ala hustu. Baina hain zuzen, Cheren ideiak bete daitezten, informazio medioen jabe diren kapitalistek interesik ez dute batere. Orduan ideia horiei beren muina kentzen zaie, eta Che pentsamendu eta ideia gabeko abenturero sinpatiko bat bihurtzen da, iraultzarik gabe. “Che Guevara zen guztia hustu eta irudi erromantiko bat, gaitzik egin ezin lezakeena, zabaldu dute”<sup>24</sup>.

Beraz, ideia denak eta jarrera denak ez dira berdinak. Denak dira historikoak, hori bai. “Errealitate honetaz konturatzeak ez du esan nahi gure kondenazioak, esateak eta egiteak baztertu behar ditugunik. Baita zera ere! Arriskuak erne jarri behar gaituela besterik ez du esan nahi” (HL 280-281). Bere kritikaren ezinbesteko historikotasuna ezagutzeak ezertan ez du kamusten Rikardoren izpiritu kritikoa edo makaltzen haren jarreraren tinkotasuna. Berea ere –Che Guevararena bezala– mito bat izango da, baina orain legitimatua eta obligatua beste mito bat kupidagabe apurtzera. Behartua, historia egitera. Dogmakeria gabe, baina irme. “Gaitza ez dago [mito, ipuin] horiek erabili beharrean, errealtate hortaz kontzientzia ez izatean, hortaz ez konturatzean baizik. Izan ere gizatasunaren aldeko borroka honetan, beharbada borrokaren gogortasunagatik, desegitea da beharrezkoa. Lehengo hurbiltzeak gainezkatzea. Baina gure hurbiltzea ere oraindik probisional dela, lehen-go baino zehatzagoa bada ere, hori ahazten badugu, kondenatzen dugun absolutugintzan eroriko gara eta dialektikoa nahi genuena geldia bihurtuko, gizatasunaren aldekoa honen kontrako” (Ib., 280).

<sup>24</sup> Cfr. *Jakin* 27-28 (1967) 10. “Izan ere Che marxista zen. Nazioartekotasunean sinisten zuen. Erreboluziogilea zen. Hirugarren munduan armen bitartez egindako erreboluzioa zela egokiena uste zuen. Klaseak badirela. Hauek borrokan daudela. Dirua kaltegarri dela. Estatu sozialistak (Europakoak) egiten duten komertzioan nazioarteko prezioak (hauek kapitalak ezartzen dituenak dira) onartzerakoan sozialismoari traizioa egiten diotela. Estatu sozialista batek produkzioko ondasun guztiak kolektibizatu behar dituela. Sozialista den Estatu batean lanerako eta produkziarako diru sari zirikatzaileak ematea ez dela gizon eta gizarte berri bat jasotzen saiatzea. Hauek ziren Cheren pentsamenduetatik eta egiteetatik batzuk. Horrelakorik, ordea, ez dugu ezer asko irakurri eta entzun. Harritzekoa izango zen. Gizon hau hil ondorenean bizi zenean baino fama-tuagoa bihurtu denez gero, erabat arriskugarria izango zen osoan, zen bezala, menperatuek eta sufrituak ezagutzea. Komeni zen, beraz, mamia kentzea”.

## Errealismoaren inperatiboa

1969ko uztailaren 10ean hil zen auto istripu batean Rikardo. Andoingo hilerrian datza hobiratua. Bost urte egiten zuenean hil zela, Gabriel Arestik hilobian bisitatu zuen: “Ayer hizo 5 años de la muerte de Rikardo – idatzi dio lagun bati. La tumba estaba triste, muy triste, tan desnuda, tan desamparada. Las rojas flores que le dejé eran como una herida abierta en el corazón del euskara”. Goibel eta desanparaoan bezala bapatean gerraondoko kulturgintza berri dena sentitu zen Euskal Herrian: Rikardoren heriotza benetan sekulakoa izan da kolpea eta odolezko zauria.

(Gabriel Aresti izan zen Rikardoren miresle bat).

Halere, berak abiatu, edo bultzatu, edo indartu zituen proiektuek, Alfabetatzeak, euskara hutsezko editorialak, prentsak, euskararen batasunak, iraun egin zuten eta, seguruenik ez Rikardok pentsatu edo amestu zituen bezalaxe, baina bizirik eutsi zioten haren izpirituari, berak erantsi zien errealismo handiarekin.

Rikardo agerkizun nolabait harrigarria eta estrainoa izan da bere belaunaldian: ameslari bat, errealismoaren maisu zehatza. Bizitu duen garaian, mutur kontrarioen arteko borroketan mugitu behar izan baitu berak aurrera, Rikardo erraz aurkitzen dugu behin errealismoa bere indar guztiakin kondentatzen, baina geroxeago errealismoa euskal kulturgintzan indar guzti berdinekin galdatzen. “Beren burua errealistatzat daukatenak, derrotatu batzuk besterik ez dira, borrokan aspertu direnak besterik ez dira” (HL 339). Idealismo gabeko errealismoa. Bestetik, alabaina, kokoteraino dago abertzaletasun hilargitarrekin eta Euskal Herriaz ideia eta teoria zoragarriak airatzen dituztenekin errealitate historiko eta sozialaren jaramonik gabe batere. “Gure errealitatea, euskaldunona esan nahi dut, direnetik eta izan direnetik hasi behar dugu aztertzen, ez behar lukeenetik”<sup>25</sup>. (Badena versus izan behar omen lukeena, lelo bat bilakatuko da Rikardoren luman).

Euskaldunok errealismoa behar dugula, errepikatu du Rikardok. Ez edozein errealismo: “erabakiak eta joerak errealitateak eskaintzen dituen datuekin hartu behar dira, baina ez errealitate horrekin bat egiteko, errealitate hori aldatzeko baizik” (HL 192). Errealismoaren eta utopiaren artean teinka dialektiko bat dago, bi eskuekin batera jakin behar da jokatzeko. Errealistak, errealitatea aldatzeko, izan behar dugu.

<sup>25</sup> Cfr. *Jakin* 31-32 (1968) 113.



“Errealitatea transformatu, aldatu, eraberritu behar dugu: bainan errealityatean, ez abstrakzioan, ez amets batean” (Ib., 193).

Euskal Herriaren errerealismoak, berak bere burua askatzeko erabakimena eta ekimena esanahi du: “Eskarmentuak erakutsi dizkigunak kontuan harturik, ez dugula kanpoko laguntzen zain egon behar, gerok geure burua salbatzen ez badugu, ez dutela gugatik egingo” (Ib., 128).

## Rikardoren “bidea”

Rikardok eta Rikardoren lagunek asko aipatu ohi zuten garai batean Machadoren bertsoa, “se hace camino al andar”. Horrek egia izaten jarraitzen du gaur ere, eta egia izan da Rikardoren kasuan. Ez daukagu haren pentsamendua “eskola” gisa ulertzerik, bidegintza bezala baizik.

Eten eta trantsizioko autoreekin maiz agitzen zaigu hori, eta Rikardorekin ere hobeto dakigu negatiboki, zer ez omen duen honez gero pentsatzen, h. d., zer abandonatu omen duen, zer baduen pentsatzen baino positiboki. Inon ez digu Rikardok azken horren azalpidetako saio sorta sistematikorik utzi. Ordea idatzi duen guztian, zer pentsatzen zuen esaten aritu zaigu lerroz-lerro. Bakarrik, pentsatzen zuena, gehiago zela bilatzen zuena, inpresio bat gertaeraren aurrean, erreakzio bat, gatazka bat. Ez zen sistema bat.

“Pentsamendu zaharrari” alternatiba gisa eraiki behar zuen bere pentsamendu berri hori geratu da fragmentoen azkenean (“Lehendabizi desegin, gero jasotzeko”)<sup>26</sup>. Beharbada kontziente zen, hori ez zela sistema gisa pentsatu behar ere, hertsiki, kapitulu batzuetan bederen (zer da sozialismoa? ala: zeintzu dira sozialismoaren minimoak?). Halere, sistema itxia ez bada, ikusten da, arazo nagusienak koherenteki meditatzeke eta artikulatzeko, saio batzuk buruan erabili dituela: batez ere pentsaera orokor baten fundamentuak ongi definituak edukitzeko. Harritzekoa ote da, horiek hein handi batean, erabakiorrean ene ustez, Santamariaren berak badira? “Gizonarengan sinestu”, “gizona posible dela sinestu”, leman laburbil daitezke ongiana.

Batez ere bi testu heldu zaigu eskuetara, postumo bakarrik ezaguturiko apunteak biak, nolabait Rikardoren “sistema”ri antzemateko bere (behin-behineko) oso-samartasunean. Bat, “Ezin etsi (euskal arazoei buruz entsegu batzuk)” legez argitaratua dagoena in HL 305-331; bes-

<sup>26</sup> Agerian dago iraultzari alusio bat dela esaldi hau: gizarte berria eraikitzeko lehendabizi aurreko estrukturak desegin behar dira, gero berriak jaso (HL 96, adibidez).

tea, "Hitzaldiak – Euskaldunen gizagintza", in RA 171-205. Gero, egin zituen artikulak ezezik, eginarazi zituenak, planteatu zituen JAKINen zenbakiak (karlismoaz, adibidez), egiteko eta eginarazteko asmoa zuen dibulgazio liburuen gai zerrenda, etab., haren pentsamendua birreskuratze materialak dira. Jomuga garbi bat eduki zuen beti Rikardoren pentsamenduak eta bilaketa intelektualak: abertzelatasun ezkertiar legez edo ezker abertzale bezala definitu beharko litzatekeena. Oho-rezko pedestala badagokio Rikardori, bere obra biziaren haxe da zor dioguna, horregatik, ezker abertzaleko pentsalarien galerian.